



## Mozorrotutako ikasliak

**E**ztakigu ziur noizkua dan argazki hau, baiña 1930-1931 ingurukua izan leikiela pentsaitten dogu. Eskola-umiak agerketan xaku; neskatillak gehixenak, baiña dozenerdi mutiko be hor dagoz, eskuetan txapa txikitxuak dakoilla. Komedixak egittekto jantzixekin ala karnabaletarako mozorrotuta? Erropak eskolakuak zirala emuten dau, garai haretako beste fotografixa batian eta beste ume batzuekin be agerketan dira-eta. Hau ospittal zaharreko patixuan atarata daguela dirudi. Atzeko bi gizonak ezezagunak dira guretzat eta ikasliak, dudaren bat edo besterekin, ondorengiak dittuzue:

**Goiko illaran:** Arantxa Uribarrena; Juanito Lizaur (?); Joxe Migel Urtaza, *Kirriñenekua*; Roberto Zulueta, *Uriartenekua*; Enrike Arana, *Porru*; Eduardo Azpiazu, *Guria* tabernia euki ebena; Juan Mari Lizaur, Damian arkitektuaren semia; eta Itziar Arrazola, Goribar auzoko kurtiderixakua.

**Erdiko illaran:** Belen Zufiria, Tetuan kalekua (gaur egungo Zubibarri); Mari Elen Arregi, Kale Zaharreko *Arrillaganekua*; Blankita Egaña, *Callestarra*; Lorenza Intza (maistria ?); Kontxa Baltategi, Patrue kaleko *Zirrinkaiñena*; Maria Angeles Ibarrondo, Kale Barriko *Ibarrondonekua*; Maria Luisa Egaña, Santa Marina onduan zan *Egañaneko* dendakua; eta Nati Beitia, Kale Zaharreko *Kastillona*.

**Beheko illaran:** Jesusa Letamendi; Rosarito Letamendi, aurrekuaren ahizpia eta bixak plazako erropa-dendakuak; Pilar Bikuña, San Antue kalekua; Sorkunde Arrazola, Goribar auzoko kurtiderixakua; Nati Ibarrondo, plazako zapaterixakua; Karmen Peña, kontzejuko sekretarixuaren alabia; Karmen Iñarra, Santa Anakua; Maria Dolores Aranburu; Eujeni Erostarbe, Kale Zaharreko Faustino ojalateruaren alabia; eta Maria Luisa Aiastui, *Kuba* tabernakua.

J. E.

Fotografixa Arantxa (Zazu) Ugalde Egañak eskuratu dosku.  
Argibidiak, berriz, Maria Pilar Egaña Muruarenak dira. Milla esker!